

# BERRIGARA

5. zenbakia

JARDUN Elkarte Bergara

1994, urriak 21



## Baserritik bizitzea



ZU BAKARRIK  
ZARA NIRE AUTOA.

OPEL CORSA  
NIRE AUTOA



OPEL

10<sup>o</sup>  
URTEURRENA

TALLERES  
**OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44/45/  
BERGARA (Gipuzkoa)  
Erakusketa ARRASATEn:  
Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86

KONTZESIONARIO OFIZIAIAK. HOBEAK ESPERIENTZIAGAITIK

# GIARTZU

Dermoestetika zentrua

Boni Laskurain, 3 ☎ 76 35 71



GIARTZU



EDERTASUNA BERE TOKIAN

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara.  
Inoa eta faxa: 76 03 97

**Argitaratzailea:**  
Gardun Elkarte  
Masterreka, 13. 20.570 Bergara.  
76 03 97

**Luzendaria:**  
Gorka Elorza.

**Irredakzioa:**  
Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta  
Mikel Elkorobereziabar.

**Waketazioa:**  
Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil.

**Publizitatea eta harpidetzak:**  
Alex Azkarate eta Gorka Elorza.  
76 03 97

**Kolaboratzaileak:**  
Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola,  
Miguel Angel Elkorobereziabar, Alex  
Labañen, Iñaki Eraña, Juan Martin  
Elexpuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain,  
Verrea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon Ander  
Bengoia, Mikel Lizarralde, Monika  
Belastegi, Aitziber Aretxaga eta Ainhoa  
Bikuña.

**Komikia eta marrazkiak:**  
Bittor Rodriguez, Gorka Ortega, Jon  
Alvarez, Jose Martin Ezenarro  
eta Julian Ezenarro.

**Banaketa:**  
Txantxangorri Taldea.

**Tirada:** 3.700 ale.  
**Inprimategia:**  
Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

**Copyright:** BERRIGARA  
**Lege gordailua:** SS 50/ 91  
**ISSN:** 1130-6599


**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik.



Aldizkari honek  
Bergarako Udaltaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundia-  
ren laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura  
sailearen laguntza jaso du

## Z E R B E R R I D A ?

### ARANTZAZU LOIDI

#### Udaleko Drogomenpeketasun teknikaria

- Zein bilakera izan du drogaren arazoak azken urteotan?

- 1992ko ikerketen arabera, Bergara eta Elkartea Autonomiko mailan antzerako emaitzak eman ziren. Droga ez legalen (kanabis gehienbat) kontsumoa minimoa zen (50 lagunetarik batek) eta joera kontsumidoreen zahartzea da. Modaren eraginez diseinu drogekin gora egin dute baina hemen ez da igartzen. Bestalde, droga legalen kontsumoa astebukaretan kontzentratzen da batipat eta gazte eta helduen artean bada ezberdintasunik: helduek harremanak edukitzeko bide bezala



erabiltzen dute eta gazteek, berriz, droga moduan.

- Zer bait aldatu beharra dago?

- Nik uste eztabaida sortu behar dela jendearen artean, ea drogekin erabilpen arriskuetsua ala normalizatu egiten dugun jakiteko, prebentzio aldetik erreflexioa planteatu.

**"Drogekin zer nolako erabilpena egiten dugun jakin behar dugu"**

## I T U R R I O N E T I K

### Juan Martin Elexpururen liburu berria Durangoko azokan

Juan Martin Elexpuru bergarar idazlearen liburu berri bat aurkeztuko da Durangon, abenduaren 6tik 8ra bitartean, izango den euskal liburu eta diskoen azokan. Elexpuru *"Kuba triste dago"* (Elkar argitaletxea) bidaia liburua kaleratuko du. Berak adierazi digunez, *"aurreko udan Kuban izan nintzen eta orduko esperientziak kontatuz bidaia liburu bat da. Kuba erdia ezagutu nuen eta zati bat bizikletaz egiteko aukera izan nuen"*. Honako hau Juan Martinen 7. liburu da. Aurrekoa ere (*Alpeen itzalpean*) bidaia liburu bat izan zen.

## ESAN DUTE

"Bergaran preso euan Angiolillo. Eta nere amak esaten eban Idarreta hotelean euala, hoteletik bazkaria eramatera joaten zala eta esaten zotzala -erdalduna zan hura:-

- ¿Usted ya se ha mirado alguna vez en el espejo? ¡¡Porque usted es una mujer de escultura!!"

**MARIA BENGOTXEA**  
87 urteko ermuarra  
EUSKADI IRRATIA

"(Lehendakariari) Ondo gobernatu dezala, guztion berdintasuna zainduz; justoa izan dadila, interes partidistak kontutan izan barik eta gizartearen ongizateaz arduratuz. Azkenik, guztion onerako, elkartuagoak egoteko eskatuko nioke.

**KOLDO LASA**  
Sukaldaria  
EL DIARIO VASCO

"Ongi etorriak bitez geurearen errespetuan eta osagarri bezala datozen Espainiako kultura, Frantziako, Europakoak eta mundu guztikoak"

**RUFINA OLASAGASTI**  
Udal Kultur Jestorea  
ARRASATE PRESS

SUSAN SARANDON TOMMY LEE JONES



**EL CLIENTE**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30 eta 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).

**LOCA ACADEMIA DE POLICIA  
MISION MOSCU**



**LOCA ACADEMIA DE  
POLICIA (Misión en Moscú)**

Larunbata: 17.00 eta 19.30.

Igandea: 11.30.



**SEXO ORAL**

Osteguna: 20.00.

**Zinea**

▼▼ **John Grisham** best seller idazlearen (*El informe pelicano*) nobelan oinarrituta, gehiegi dakien mutil bat (**Brad Renfro**), egiaren bila dabilen esperientziarik gabeko abokatu bat (**Susan Sarandon**) eta probak jasotzen ari den fiskal bat (**Tommy Lee Jones**) aurkezten zaizkigu. **Joel Schumacher** (*Un día de furia*) zuzendari tentsioz beteriko filme honetan.

▼▼ Polizi akademikoek protagonizatzen duten *auskalogarren* filma. Itxura batean gerra hotza amaitu da baina polizia elebre hauek berriro berotzeaz arduratuko dira; Moscura heldu eta Errusiako Mafiako buruari aurre egingo diote, munduan zehar zabaldu nahi duen boterea geldiarazteko. Aurrekoetan bezala, zentsu-gabeko umorea nagusi.

▼▼ Ez da X filme bat ez. Tituloarekin jokatur, **Chus Gutiérrez** zuzendariak (*Sublet*) jendearen sexuari buruzko hainbat testigantza aurkezten dizkigu. 60 pertsonatik gora kamara aurrean jarri eta beren sexualitate eta harreman afektiboan inguruan daukaten ikuspegia azalduko digute.

**Deiak**

▼ **Yoshiyasu Zenitaniren** margoak ostegunera arte Bilboko Berta Belaza galerian.

▼ **Jon Balentziagaren** pintura eta eskulturak Donostiako Arrasa-te erakusketa aretoan.

▼ **Maite Juan Marquesen** pintura erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **1929an** jaiotakoen anaiarte-ko eguna urriaren 30ean. Izen-ematea: 76 19 22/ 76 46 88.

▼ **Bedelkar.** "Técnicas de merchandising y animación comercial" urriaren 25etik 27ra 14.30etan Kultur Etxean (76 04 68).

▼ **Esperanto** ikastaroa urriaren 28tik azaroaren 1era Gasteizen. Argibideak: (945) 14 17 47.

**Ogia**

▼ **Igandea 23:** Ogizun.

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

- ▼ **Ostirala 21:** Puy/Ruiz..
- ▼ **Larunbata 22:** Guallar/Morales.
- ▼ **Igandea 23:** Guallar/Azkoaga.
- ▼ **Astelehena 24:** Estella/Español.
- ▼ **Astearte 25:** Mozos/Corcuera.
- ▼ **Asteazkena 26:** Camacho/Irizar.
- ▼ **Osteguna 27:** Puy/Amezua.

Zure  
konfidantzako  
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

# MIKEL LASKURAIN

## "Goenkale" telesaioko FELIX

Mikel Laskurain bergarar aktorea "Goenkale" saioko protagonistetako bat dugu. Euskal kulebroi hau egunero jarraitu dezakegu ETBko lehen katean, gaueko 9etan.

**- Lehen euskal kulebroia al da "Goenkale"?**

- Bai, dekorazio errealistarekin egindako melodrama bat da eta gidoigileek ere ez dakite nola amaituko den. Printzipioz Gabonak arte 64 kapitulu izango dira eta ETBk aurreikusitako ikusleko kopuru bat lortzen bada ekainera arte jarraituko dugu, 200 kapitulu denera.

**- Jendea engantxatzen al da?**

- Nik uste dut baietz, ordua parean tokatzen bada jendeak ikusten du. Gainera kapitulorik ez galtzeko aukera dago: bezperako kapituloak 3retan errepikatzen dira eta larunbat arratsaldean aste osokoak.

**- Errodaia gogorra al da?**

- Irailean entsaiuak egin genituen eta orain, egunero, goizeko 7retan



Mikel Laskurain aurpegi ezaguna bihurtzen ari zaigu.

rako estudioan egon behar izaten dugu; makillajea egin eta jantzi, 8etan grabatzen hasi eta 3rak arte egoten gara. Astean bost egunez egiten da errodaia.

**- Zein da argumettoa?**

- Hasiera batetan gauza hasten da familia bateko herentzia baten kontura bi anaien arteko tirabirekin. Bakoitzak bere kontuak dauzka eta, nere lanari dagokionez, ni (Felix seriean) nabil familia horretako loiba batekin,

tabernan serbitzen ibiltzen dena (Miren, Amaia seriean). Kartzelan egondakoa naiz eta tabakoa-ekin kontrabandoa egiten dut. Beste bergarar bat ere badago gurekin lanean: Eskarne Mujikak el-karrizketak lantzen ditu beste hainbat lagunekin batera.

**- Famosoa izango zara dagoeneko...**

- Famosoa ez, ezaguna. Umeen programazio tartean jotaen da "Goenkale" eta haurrek behintzat ezagutzen naute. Gainera zelan lotsagabe batzuk diren...

**- Komedian ala melodraman gustorago?**

- Niri danetik gustatzen zait, gauza ezberdinak probatu. Orain gustora nago honetan eta gero ba etorriko da beste zedozer...

**- Etorkizunerako asmorik?**

- Telebistan datorren hilean ezkutuko kamarekin egindako programa bat estrenaituko da. Ni taxistaren papera egiten dut eta taxian sartzen den jendeari abestu eragin, mozkortuta nagoela sinistarazi eta horrelakoak egiten dizkiot. Parregarria izango dela uste dut.

**"Dekorazio errealistak erabiltzen dituen telesaioa da Goenkale. Euskaraz egiten den lehen kulebroia. Gidoigileek ere ez dakite nola amaituko den"**

**MEMESA**

ARRASATE • 79 42 22 • ARETXABALETA

**P**  
phanton

**IRIMO**

SFK

**Ma"nip"ulazio baten istorioa**

Eusko Jaurlaritza Interbentzio Gu-  
ne Partehartzailleetan (IGP-NIP) oni-  
ritzi sozial txikiena jaso zuen alterna-  
tiba bultzatzen ari dela salatu nahi  
dugu. Azkenean biztanleen iritziak eta  
ondorioak alde batera utziz, autopis-  
taren aldeko apostua egin bait du.

Jadanik autopistaren aurreproiektu  
hau 91 urtean egin zela, beraz zaharra  
da eta gainera ez ditu IGPetan aterata-  
ko ondorioak kontuan hartzen.

IGPetan azaldu zenaren arabera,  
herritarren % 80k egungo errepidea  
hobetzea nahi du. Errepide azkarraren  
aldekoak % 15 besterik ez dira eta  
peajearen aldekoak % 5.

Beraz esan dezakegun bakarra ze-  
ra da: Eusko Jaurlaritzaren jarrera guz-  
tiz autoritarioa dela.

Debasak azkar asko esan du IGP-  
etan ateratako ondorioak kontuan har-  
tuko dituela, baina bide honetatik gaiz-  
ki doaz. IGPetako emaitzak eta be-  
rehala hasi ziren irakurketa tenden-  
tziosoak. Administrazioaren maniobra  
garbia ikusi genuen hasieratik. NIP-  
IGPak martxan jarri zituzten herri mu-  
gimenduaren ahotsa isilarazteko, uste  
zuten bailarako biztanlegoa autopis-  
taren alde azalduko zela, baina azke-  
nean...

Asko eztabaidatu eta gero IGPetan  
parte hartu genuen. Azkenean denbo-  
rak, "gizarteaz enpresak" eta admi-  
nistrazioak arrazoia eman digute, guz-  
tia aurpegia garbitzeko maniobra bat  
besterik ez zen.

Guzti hau lotsagarria izanik gainera  
autopistaren afera saskibaloiarekin  
nahastu dute (gogoratzen al zarete  
1991ko udan Foru Aldundiak Askatuak  
saskibaloit taldeari eginiko proposa-  
mena? Foru Aldundia dirua emateko  
prest zegoen "Leitzarango autobia"  
izena jarri ezker), Arrasate saskibaloit  
taldea diru publikoz finantzatuz, EBA  
ligan "Urbina-Maltzaga saskibaloit tal-  
dea" izenarekin aurkeztea eta "Mal-  
tzaga-Urbina irtenbidea" eslogana era-  
matea lortu du Debasak.

Uste dugu DEBASA, kirol erakunde  
baten egoera larriaz baliatu dela, kirol-  
laren erabilera iguingarria egiten ari  
dela eta honelako jarrera zikinekin gar-  
bi gelditzen dela norainoko borondate  
maltzurra daukaten.

Azkenik berri on bat, Debasak zi-  
urtatu zuenez Bilbo-Behobia autopis-  
taren peajea ez da luzatuko, beraz  
2005 urtetik aurrera A-8 autopista do-  
hainik erabili ahal izango dugu. Ea  
egia den: edo gaizki ulertu dugu?

EGUZKI

**Tiira biraka**

JON ALVAREZ & GORKA ORTEGA



◆ **Atxiloketa**

Ertzantzak Antxon Sasiain bergararra atxilotu zuen astelehenean, aurreko astean Batzokira bi ke pote jaurti zituela leporatuz. Asteartean Ipintza eta Miguel Altuna institutuetaiko ikasleek greba egin zuten eta eguerdian manifestazioa izan zen herriko kaleetan. Juezaren aurrean deklaratu ondoren, Sasiain aske utzi zuten.

◆ **Lapurrak Pizinetan**

Ertzaintzak L.F.M. 23 urteko arrasatearra atxilotu zuen asteartean, astelehen gauean Pizinetako tabernan egin zen lapurretako ustezko egilea izategatik. Pizinetako tabernatik bideo bat, musika aparailu bat, 13 compact-disc, tabako gorriko 32 kartoi, hainbat botila, txiskeroak eta 100.000 pta. inguru eraman zituen.

**JAIOTAKOAK**

Julen Márquez-Zumelaga. Urriak 13.

**HILDAKOAK**


Isidro Garitano Aldekoa. Urriak 16, 79 urte.  
Josepa Padilla Ibarguen. Urriak, 16, 82 urte.

**Plenoan zerga, tasa eta prezio publikoen igoera onartu zen**

Asteleheneko Plenoan udal zerga, tasa eta prezio publikoen igoera onartu zen. EAJ eta PSE-EEk alde eta HBk kontra botatu zuten eta EAK, berriz, IPCa jasotzen zuten igoe-rak bakarrik onartu zituen. Horren arabera, kontribuzio rustikoak % 4,2 (IPCa) gora egingo du eta kontribuzio urbano-aren koefizientea 0,52etik 0,57ra pasako da. Iharduera Ekonomikoen Gai-neko Zergak % 7,7ko igo- era izango du eta zirkula- zio zergak % 7,3. Plusba- lia zerga berdin manten- duko da eta obra eta ins- talazioen gaineko zergak ere ez du aldaketarik.

Tasei dagokienez, za- borrena, zabaltzearena eta lehen erabilpenarena % 4,2 igoko da eta azoka- ko postu fijoiei eta base- rritarrei ere urteko IPCa- ren igoera gehituko zaie. Dendari ambulanteen kuota bikoiztu eta anbu- lante bereziena hirukoiz- tu egingo da; kanposan- tuko tasa % 40 igoko da eta estolderiarena % 42. Obra baimenerako tasak eta gainerakoek IPCaren igoera izango dute.

Igerileku zein Kiro- ldegiko prezio publikoek % 8 garestituko dira, Eus- kaltegiak proposatutako igoera (IPCaren inguru- koa) ere onartu zen eta



Igerileku eta Kirolddegiko prezioak % 8 garestituko dira.

urari % 22,8ko igoera aplikatuko zaio.

**HB igoeren kontra**

Boto esplikazioan, Juan Daniel Kortabarriak (HB) adierazi zuenez, "ez ditugu igoera hauek planteatu diren bezala ondo ikusten. Gauregun- go egoera nabiko txarra da eta hor dago esate ba- terako MAYCen datozen 2 urtetarako onartu den % Oko igoera". Juan Mari Garitanok (EA) zera adie- razi zuen: "IPCKo igoerei bai esan diegu eta beste igoerak, urarena tar- tean, zalantzan jartzen ditugu. Gainera uraren igoerak ez du justifika- tzen gero zenbait tokitan jasotzen den zerbitzua". Victoriano Gallastegi alkateak (EAJ), berriz,

zera erantzun zien: "Ez da gure gustokoa ura igo- tzea baina beharrezkoa da. Hor dago Albitxun gertatutakoa; Urkuluk, berriz, garantia batzuk ematen ditu eta datorren urtean segunduko 40 li- tro kontsumitzera iritsi gaitzke. MAYCen kon- benioari buruz langabe- tuak egoera okerragoan daudela esango nuke".

Bestalde, aho batez, Frontoian 48 milioi pta.- ko kostuarekin egin be- harreko hobekuntzak eta bertako errentari berria- rekin sinatuko den akor- dioa onartu zen. Azkenik, Kartzelan hobekuntzak egiteko 1.800.000 pta. ko partida bat onartu zen. HB kontra azaldu zen edifizio historiko horri eman zaion erabilpena- rekin ez dagoelako ados.

**iRUDI**  
Erlojudenda  
Bitxidenda  
Ibargarai, 2  
☎ 76 51 65

**F.J. ARISTONDO**  
**GOROSABEL**  
LARRUAZALAREN  
GAIXOTASUNAK ETA  
GAITZ BENEREROAK  
Registroa: 154-94  
Barrenkale 16, 1 ☎ 76 18 81

**ITXASMENDI**  
**Taberna**  
BARRENKALE, 36  
☎ 76 50 64  
BERGARA

◆ **Lurralde ikasketak**

UNEDeko Geografia eta Historia Departamentuak *Lurralde ikasketen metodologia eta praktika* ikastaroa antolatu du azarotik martxora bitartean. Eskola orduak 116 izango dira eta matrikulak 30.000 pta. balioko du. Matrikula epea azaroaren 10ean itxiko da (plaza mugatuak). Argibideak 76 13 42 telefonoan.

◆ **Elgetako Oskarbi elkartearen oharra**

Gabonetako loterian jokatzeko azken eguna urriaren 31 dela adierazten du Oskarbi elkarteak. Bestalde, urteko asanbladan Pedro Mari Gorrotxategi presidente eta Pedro Mari Ojanguren presidenteorde izendatu zituzten.

◆ **Elkarteen arteko Tute eta Mus txapelketa**

Gorla Alpino taldeak antolatuta, azaroan Bergarako elkarte, peña eta hermandadeen arteko Tute eta Mus txapelketa jokatu da. Izen-ematea 176 posta-kutxan urriaren 30a baino lehen.

◆ **Argazki rallya**

Bihar larunbata, 8etan, argazki rallyko sari-ematea eta proiektzioa izango da Pol-Pol Argazki Taldeak Zabalotegin duen lokalean. Guztira 44 argazkilari aurkeztu ziren.

◆ **San Pedro Parrokiako telefono zenbaki berria**

San Pedro Parrokiak telefono zenbakia aldatu berri du. Bertara deitzeko 76 08 44 zenbakia markatu beharko da:



Dendari anbulanteek eta baserritarrek eskatutako arranpala zabaldu zen larunbatean.

**Baserritar eta anbulanteak azoka berriko postuetan**

*Larunbatean azokako sotanoa eta arranpala zabaldu ziren*

Aurreko larunbatean dendari anbulanteek eta baserritarrek azoka berriari izango dituzten postuak okupatu zituzten lehen aldiz. Irailean merkaturia inauguratu zenetik, beren eskakizunak betetzen ez zirenez (karga-deskarga lanak egin ahal izateko arranpala eskatzen zuten), Ibigarainko merkaturia alternatiboan izan dira protesta modura. Oraindik guztiz bukatuta ez dagoen arren, arranpala sarrera nagusiaren ezker aldean egin da, eta larunbatean merkatura hurbildu zen zenbaitek bertara sartzeko ere erabili zuen aipatutako arranpala.

Fruta saltzaileak ere oraingoz sotanoan dira, albo bateko tabike bat bota eta arranpalaren aldeko

azalera komertziala haunditu arte.

Egunero 3 baserritar izaten dira azokan, sotanoan (ez dute oraingoz postu fijoetako bat okupatzeko eskaintza onartu) eta astebukaerari 15 baserritar eta 5 bat fruta-saltzaile biltzen dira.

Bestalde, gogoratu behar da Udalak hainbat zigor espediente zabaldu ziela dendari anbulanteei eta baserritarrei Ibigarain baimen barik saldu eta Udaltzainen aginduei kasu ez egiteagatik. Victoria- no Gallastegi alkatearen hitzetan, "espedientearen tramitazioa aurrera, doa baina oraindik ez da erabaki 75.000 pezetako multak kobratuko zaizkien ala ez. Datoren astean horren inguruko erabakia hartu beharko dugu".

TAPIZERIAK  
MOKETAK  
ALFONBRAK

**GASTON Y DANIELA**


KRUZ GALLASTEGI  
☎ 76 07 37

ARTISAUTZAKO IZOKIA

**GOXO-TOKI**

D. Irola, 3 - Tlf. 761235  
Makitegi, 34 - Tlf. 762337  
BERGARA





# 13.000 bergarar inguruk izango du botoa emateko eskubidea igandean

**Igandeako bozketetan 12.779 bergararrek izango dute botoa emateko eskubidea.**

Biztanlegoaren % 82k hauteskontzietara hurbiltzeko aukera izango du. Botoa goizeko 9etatik arratsaldeko 8etara bitartean eman ahal izango da etenik gabe.

## Mahaietako presidentek

Hainbat bergarri mahaietan lan egitea tokatu zaio igandean. Mahai bakoitzeko presidentea eta bi bokale izango dira. Horra hor mahaietako presidenteen zerrenda:

Seminarioan: Jose Ramon Garate Iturbe, Gregoria Roman Morales, Roman Gallastegi Unamuno, Maria Jose Urzelai Larrañaga, Rafael Agirrezabal Larrañaga, Alicia Bernal Lafayete, Maria Trinidad Martin Rodríguez eta Nicolas Zabaleta Unzueta; Matxiategin: Fernando Valle Calleja eta Iñigo Martin Romero; Ibaiondon: Maite Agiriano Garaikoetxea eta Luis Mari Ozaeta Etxabe; Osintxun: Olatz Aperribai Andoaga; Martokuan: Santiago Roza De la Les-

mes (Beheko eskolan) eta Jose Gabriel Agirre Fernández eta Juan Carlos López de Subijana Aretxaga (Martoko goian); Ibarra: Eva Agirre Bi-ziola.

Presidenteek eta bokalek bederatzina mila pezeta jasoko dituzte dieta modura.

Bestalde, aste honetan zehar, alderdi ezberdinetako ordezkariak gure herria bisitatu dute hautesleen botoa eskatu nahian. Jarraian, horren errepa-soa:

## EAJren autobusa

EAJren kanpaina autobusa bisitari izan genuen ostiralean eta astelehenean. Besteak beste, Joseba Leizaola Parlamentuko presidentea, Imanol Bolinaga senadorea, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea eta Udaleko hainbat zinegotzi, bailarako beste zenbait udaletako ordezkariak laguntzaz, EAJren aldiakaria eta goxokiak banatzen izan ziren herriko kaleetan. Aipatutako aldiakarian alderdi bakoitzak izango duen eserleku kopurua asmatzen dutenek Jose Antonio Ardanza Lehendakariarekin afaltzera joateko saria es-

kuratzeko aukera izango dute.

## HBko kotxe martxa


20 bat kotxeko karabana izan zen HBk igande arratsaldean Arrasatera antolatutako kotxe martxan. Partaideek Herri Batasunak bere kanpaina aldarrikatzen dituen ekolojismoa, feminismoa, abertzaletasuna edota in-tsumisioaren ikurriñekin kotxeak apaindu eta, euripean, Beheko Estaziotik Arrasaterako bidea hartu zuten. Bertako plazan, Xabier Zubizarreta Arrasateko alkate eta HBko Gipuzkoako zerrenda buruak eta Iñaki Antigüe-

dadek mitina eman zuten.

Bestalde, gaur ostirala Gozategi anaien eskutik trikitilari saioa izango da gaueko 10.30etan Pol-Polen.

## IU eta PPkoak ere

Ezker Batuako ordezkariak Bergaran izan ziren larunbatean. Bestalde, asteartean etortzekoak ziren Bergarara J. M. Arteaga, Gregorio Ordoñez eta Eugenio Damboriena PPko ordezkariak. Arrasate eta Soraluzen izan ondoren, Bergaran parada egiteko asmoa zuten baina ez dugu konfirmatzerik izan Bergaran izan zirenik.



Eusko Legebiltzarra osatzeko hauteskundeak igandean.

**KONDE**

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A

**GAZTELU**  
**BURDINAKI DENDA**

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

## Elikadura

# Barazki sukaldaritza

- Zer nolako elikadura daukagu?

- Ni barazkijalea naiz baina badago beste jende asko haragia eta arraina jaten duena. Hor bakoitzak bere aukera pertsonala dauka.

Alde batetik, nere usitez, olio gehiegi erabiltzen dugu, gauzak asko erretzen ditugu eta bestalde, janariak zelan nahasten ditugun ere ikusi behar da. Nik behintzat ohitura txar batzuk ikusten ditut: fruta azken momentuan jatearena (hobe da janari arinak lehenbizi hartzea), produktu errefinatuak ere txarrak dira eta, azkenik, esne gehiegi edaten dugu.


Bestalde, ez dago informatzeko ohiturarik eta elikadura enpresek lehenbizi irabaziei begiratuaz diete. Ikusten dute zer den gehien saltzen dena eta hortik jotzen dute. Umeei goxokiak nola saltzen zaizkien adibidez salatzea da.

- Proposamenik?


- Dudarik gabe, elikadurak eta gure bizitzak harreman zuzena daukate. Ezin daiteke esan elikadura hau edo beste

hori onena dela. Gorputzak berak esaten digu nondik nora jo, informazio jasotzen ari gara eten gabe. Lehenbizi gorputza garbitzea da onena. Zelan? Normalean ezagutzen ditugu gaizki egiten ari garen bizpahiru gauza (gehiegi erre edota goxoki pila bat jan esate baterako); hori kentzen hasi eta gorputzak berak beste gauzei buruzko informazioa emango digu.

## "Gorputzak berak esaten digu zer komeni zaigun. Informazioa jasotzen ari gara etengabe"



Barazkiekin janari ikusgarri eta gozoak gertatu daitezke.



**FERNANDO ROYO**

(sukaldaritza begetarianoari buruzko ikastaroak ematen ditu)

- Ze informazio?

- Gure gorputzarekiko maitasuna topatzen saiatu behar gara. Jende askok argaldu nahi izaten du besteek gustatzeko, imajina emateko eta onena da lehenengo norberaren gorputza gustatzea. Bestela emozionalki su-

fritu egingo duzu eta gorputzak bai. Adibidez zedozer ez jateagatik askotan sufritzen gaude, gogo ikaragarria sentitzen dugu eta kasu horietan onena jatea da. Aldaketa ona izateko sufritu gabe egin behar da. Mugak momentu kritikoetan bakarrik dira onak. Bizitza bere osotasunean ikusi behar dugu: kontestu batzuetan erretzea ona litzateke (lana izan daiteke benetako arazoa adibidez). Beharbada beste gauzaren bat dago hor zintzilik eta hori konpondu bezain laster ba erretzea ere berez jausiko da. Gorputzak esango digu zer jan.

- Zeintzuk lirateke ohitura onak?

- Hainbeste ez jatea, gosea izaten ohitzea, edozein momentutan ez jatea eta ura edatea, egarria kentzeko onena da eta. Egardia eta gosea, ziklo bitala sentitzea azken batean. Askotan presaka jan eta ez dugu lehen aipatutako informazio hori jasotzerik izaten.

- Hemengo produktuen kalitatea ona da?

- Oso produktu onak eta freskoak dauzkagu. Arazo bakarra da nahiko kutsatuta daudela baina beste herrialdeetako produktuekin konparatuz ondo daude. Jendeak ondo erosteko ohitura dauka eta ez dut beharrezkoa ikusten kanpoko produktuak ekartzea.



**DEBA  
GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar  
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

**LONBIDE  
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**



Juanito Garaik ortua lantzeaz gain, animaliak ere (behiak, untxiak...) baditu.

## Ni bizi naiz baserrian...

*Bizimodua baserritik ateratzen dutenak badira oraindik*

**P**eio Arkauz San Juan auzoko Narbaiza baserrikoak bizitza osoa darama baserrian lanean. Hasiera batean ortu eta animaliekin aritzen bazen, gaur egun, ortuko lanak alde batera utzi ez dituen arren, lorazaintzatik ateratzen du etekinik handiena. Baserrian 6 negutegi ditu, krabelinak, gladio-loak, krisantemoak eta anemonak lantzen ditu batez ere. Lorak, Arkauzek dioskunez, beste landare mota batzuen moduan zaindu behar dira,

**Urteek eta gaurko bizimoduak pixkanaka-pixkanaka gauza asko alde batera utzi dituzte. Duela urte batzuk Euskalerriko jarduerarik nagusienetako baserria bazen, gaur egun gutxi batzuk jarraitzen dute baserritik bizitzen. Gure herrian badira baserritik bizi direnak, bakoitzak saltzeko produktu propio bat aurkitu duelarik.**

temperatura eta argia dirrelarik faktore garrantzitsuenetariakoak. Lorak Arrasateko eta Bergarako merkatuetan saltzeaz gain, loradendetan ere saltzen ditu. San Juan os-

tea da urteko sasoirik emankorrena, orduan lorak almazenetara eramaten ditu. Euskalerrian loregintza nahiko hedatuta dagoen arren haziak kanpotik ekarri behar ditu,

Holanda, Italia eta Frantziatik batipat eta horrek produktua garestitu egiten du.

Loregintzan ikasteko Arkauz duela 20 urte Katalunia aldera joan zen. "Orduan Katalunia zen loragintzan nagusia, orain Almeria eta Galizia dira produkzio handiena dutenak. Loren munduan konpetentzia handiagoa eta eskulan merkeagoa baitute. Gainera lorendako eguraldi aproposa dute, egunez bero eta gauez hotza" dio Arkauzek.

Loragintzan aritzeko arazorik nagusienetako gure baserrietako terrenoa sailen izaera da. "Lurra ezin daiteke mekanizatu behar den moduan. Ez erregatzeko ez lantzeko, bemen zati bat ban beste bat. Kanpoan terreno lauetan etekin handiagoa ateratzen dute eta eguraldia ere ez da fidatzekoa" esan digu Pellok, Narbaiza baserrikoak.

**"Baserrian ez dago jai egunik"**

Juanito Garai Basalgo auzoko Arizmendi baserrikoak bere familiarekin batera baserritik bizi da. 10 behi ditu, esne eta haragitarakoak, ortuan denetik pixka bat du eta pinuak ere baditu. Eguero Bergarara jeisten da

# Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...**  
Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA



## ETXEBERRIA

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

baserriko produktuak saltzera. Langintza hori aurrera eramateko ez du ordurik.

Goizean goiz jaiki eta lehenengo lana behiak jeistea da. Ondoren, esnearekin batera, barazkiak ipini eta aurreko egunean gertatutako produktuak kotxean sartu eta etxeoandrea kalera jeisten da produktuak saltzera. Bost negutegitan leka, tomatea, letxugak, piparrak etab.ak lantzen ditu. *"14 urte nituenetik ari naiz lanean eta ikasi dudan guztia lanean ikasi dut. Poliki-poliki gauza ezberdinak probatzen ditut, batzuetan galduaz eta ikasi delakoan, orduan hartzen da ostikadarik handiena. Gainera, ez dakit, baina lurra nekatu abala atmosfera izorratu delako arazo gehiago daude. Gaztetan San Juan sagarrak bazter batean sartu eta han egiten ziren, melokotoia berdin. Gaur ipintzen duzu eta lehenengo urtean bat edo bi batu eta akabo. Keixarekin berdin gertatzen da, lehenengoarekin konparatuz ez du gatzik"* dio Garaik.

Horretaz gain, kanpotik etorritako produktuek ere konpetentzia handia egiten diete, halere kalitate ona ateratzen bada saltzen dute. *"Horretarako lurrari, animaliei bezala, jaten ondo eman behar zaio"* esan digu.

**"Makinariari esker, baserriko lana erraztu egin da. Baina makinek aberia bat dutenean. 20.000 duro joateko ez da ezer behar"**

**JUANITO GARAI,**  
**Arizmendi baserrikoa.**

Ezkondu zenetik ez du emaztearekin batera oporrik hartu eta baserria ondo gobernatzeko eguneroko lan egin behar izaten du. Horrenbeste lan egin arren, izan ditu urte txarrak. *"Ur handiak izan zirenean uzta eramanean zigun, sikuteak ere kalte egin digu, txingorrek etab.ak kalte egin izan digu. Halere, lehenengo lanarekin konparatuz orain makinariari*

*esker baserriko lana erraztu egin da. Baina makinek aberia bat dutenean, 20 mila duro joateko ez da ezer behar"*.

**Gazta, ogia eta abeltzantza**

Juan Jose Murgiondo Elorregiko Aierdi baserrikoa da eta ardiekin, behiekin eta ogiarekin ateratako etekinetatik bi-

**"Gure lurren orografia aldapatsuagatik, ezin daitezke behar bezala mekanizatu.**

**Ez erregatzeko, ezta lantzeko ere"**  
**PEIO ARKAUZ,**  
**Narbaiza baserrikoa.**

zi da. Ardiekin esnea eta gazta ateratzen dute eta behiak haragitarako erabiltzen dituzte. Aierdi baserrian senar-emazte eta semeek egiten dute lan. Goizeko 3retan hasten da hango langintza ogia egitearekin, horretarako bi labe dituzte eta ogia egin ondoren Rosario Belastegi, Bergara, Antzuola, Arrasate eta Elgetan zehar ibiltzen da ogia saltzen.



Aierditarren baserrian lan eguna goizeko hiruretan hasten da.

*anztzinako gauzak dekoratzeko ideiak*

**Rincones**


*dekorazioa*

Irala kalea z/g BERGARA Tfnoa eta Faxa: 76 52 98

**LAKET**

**gizon emakume**

Barrenkale, 35 BERGARA



Pello Arkauz orain dela 20 urte hasi zen loragintzan.

Bitartean senarra baserrian gelditzen da ganadua gobernatzen edo bestela ardiekin Durun duten txabolara joaten da. *"Lanik zailena ardiak jeitea izaten da. Aurten 400 kilo gazta egin dugu eta guztia saldu dugu"* adierazi digu Murgiondok. Baina aierditarrak egiten duten ogiarengatik dira ezagunagoak. *"Kalean saltzeaz gain, dendetan ere saltzen dugu eta jenteak gero eta gehiago apreziatzen du. Baserriko betiko ogiaz aparte beste luzeago batzuk saltzen ditugu eta horiek dira gustokoenak. Egurrezko labea dugu eta, batez ere, pago egurra da ogia egiteko onena. Labearen*

*temperatura 250 gradu-koa izaten da"*.

Orain dela 30 urte hasi ziren ogia egiten, baina duela urte batzuk jarduera hori legalizatu egin behar izan zuten. Halere Murgiondo ibili izan da lantegi batean lanean eta berak esan digunez, makina baten lanean aspertu egiten zenez, baserritik bizitzea erabaki zuen. *"Ordutik bona baserriko langintza asko hobetu da. Ardiak orain selekzionatu egiten dira eta produkzio handiagoa ematen dute. Lehendik asko hobetu da ganadua"*.

Gauzak hobetu arren, argi geratu da erreportarian baserriko bizimodua latza dela.

## Karmen Iturbe

MENDI  
NEKAZARITZAKO  
TEKNIKARIA



### *"Kostu txikiko eta kalitatezko produktuak eskatzen zaizkie baserritarrei"*

Karmen Iturbe, Deba Garaiko Mendi Nekazaritzako teknikoari galdera batzuk egin dizkiogu.

**-Zenbat bergarar bizi dira baserritik?**

- Baserritik %50 baino gehiago ateratzen duen edozein baserriar kontsideratzen da. Hori frogatzen duenak I.C.M (indemnizaciones compensatorias de montaña) laguntzak jasotzen ditu. 1989an jasotako datuen arabera, laguntza hori 42k jasotzen zuten. Baina laguntza horiez gain, Mendi Nekazaritzatik beste laguntza batzuk ematen dizkiegu. Batez ere bideak eta ur azpigiturak egiteko %55etik %65era bitarteko laguntzak ematen ditugu Mendi Nekazaritzatik. Udaletik

eta Diputaziotik beste laguntza batzuk jasotzen dituzte.

**- Ze zailtasun dituzte gaur egun baserritarrek?**

- Alde batetik produkzio arloan dauden zailtasunak. Kostu txikiko eta kalitatezko produktuak eskatzen dira eta kanpotik izugarriko konpetentzia dago. Kanpokoek esplotazio handiagoak dituzte eta kostu txikiagoarekin produktu gehiago ateratzen dute.

Orografiak ere asko mugatzen du, hemen zailtasunak baitaude makinaria sartzeko. Beste arazo nagusia da gazteak ez direla baserrian lan egiten geratzen. Garrantzitsuenak lur saila bilatzea, kuota bat lortzea eta lanak berak daukan lotura dira.

# ARREGI

**Eraikuntza materialeak**

Biltegia Tellerian. Labegaraieta.

☎ 76 27 93

- Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketa
- Era guztietako konponketak, garbiketak...
- **ESKAINZTA BIKAINA: 4 gurpil erosi eta 2 ordaindu!!**

## Mekolalde

**Mekolalde auzoa. Tfnoa: 76 59 14**

A  
U  
T  
O  
A  
K

## 12/13 urtekoentzat dibertsioa non?

12-13 urte badituzu, honezkero konturatuko zinen Bergaran guretako ez dagoela dibertsio iturri haundirik. Gurasoei edo adinduei galdetuz gero, kirol eta ikastaro asko ditugula esaten dute, baina eurak ez dira konturatzen ez dugula ikastarotik ikastarora ibili nahi. Larunbat eta igandeetan, arratsaldez eta gauetz oso ondo pasatzeko dibertsio piska bat nahi dugu. Diskoteka bat ere badaukagu Bergaran, baina hango musika ez da jende askorentzat batere atsegina, ezta barruan egoteagatik, ordaindu behar izatea ere.

### Kilometroak 94

**Goiza argi** hasi zen; denok ongi pasatzeko gogoia genuen. Legazpira heldu eta lehenengo gauza, Super 1 karpara joatea izan zen. Ni ez nintzen sartu, baina beste batzuk karneta egiteko asmoz barrura abiatu ziren. Gosea heldu zitzaigun tripara eta hamarretakoa jaten hasi ginen. Geroz eta jende gehiago hasi zen biltzen plaza antzeko hartan; zelaia ere jendez bete zen topetaraino. Txoznak,

Jaietan, berriz, zer gertatzen da? Plazan musika dagoenean ez da beti anbienterik egoten. Horrelako egunetan ambiente gehiena tabernetan izaten da, baina gu taberna batera sartzean, gehienek aurpegi txarrez begiratzen digute, zer egingiten ote duten "KAKAUME" hauek hemen galdetuz.

Guk eskatzen duguna, hilean behin besterik ez bada, kontzertuak egotea da. Denon gustoa egiteko taldeak aldakorrak izatea proposatzen dugu.

Posible ote? Esan digutenez, beste herri batzuetan egiten da.

ziburuak, globoa eta beste hainbat leku egonezinak bihurtu ziren. Ondoren, bazkal orduan, kontzertuak hasi ziren: Mikel Markez, Hertzainak, Ipar Raperoak... "Larrain dantza" ere dantzatu genuen. Hura nahiko entretenigarria izan zen. Eguna pasatuz joan zen. 7.30etarako Bergaran ginen berriro ere, baina azer nolako abenturak, autobusa topatu ezinik ibili ginen...

## Ikastolara bueltan

**Horrelako opor atseginak igaro ondoren, tristura guztiarekin bagatoz ikastolara.**

**Gu, 8.A.ko hiru neska gara, eta oso triste itzuli gara ikastolara, aurtengo udaran abentura izugarriak izan ditugulako.**

**Zuek BERRIGAZTEko irakurle maiteak triste egongo zaretela uste dugu, baita Institutua edo Profesionala hasten zaudetenok ere.**

**Aurten 8. mailakook "Azken bidaia" egin behar dugu. Honetarako dirua batu behar dugu eta horretarako izerdiak bota behar izaten ditugu.**

**Beno, agurtzeko garaia heldu zaigu. Animo, ondo hasi kurtso berria.**

**Zuen hiru lagunak:**

**Ainhoa Basuri  
Maite Loidi  
Nerea Osa**

### BERTSOA

**Udara bukatu da ta hasi da negua fraka motzak gorde ta jantzi abrigua laister hasiko gera gu piztutzen sua eta mendiko hartzak hartuko du lua.**

**Tristura ematen du euria egiteak eta are gehiago gure zeru grisak kalera irten eta gu beti bustiak bukatzeko gogoia dugula guztiak.**

**Edurra hasi da ta kalea zuritu tximinia beltzitu katarroa hartu ta sudurra gorritu, Euskal Herri osoa zaigula alaitu.**

**Ane Garmendia Izar Mendikute**



**Mutila/neska topatzeko bost aholku**

1. Lehen gauza mutila /neska ezagutzea da eta berarekin zaudenean zaren bezalakoa agertu, hau da, "naturala"
2. Beraz interesaturik zaudela aditzera eman.
3. Mutila/neska erraza bada, zutaz interesatuko da segituan, baina zaila bada konfiantza lortu.
4. Aurreko hiru puntuak ondo joanez gero, seguru zurekin irten nahiko duela.
5. Erantzuna baiezkoa bada, poliki joan zaitez eta egin behar baduzu, preserbatiboa erabili. Erantzuna, berriz, ezezkoa balitz, saia zaitez hasieratik berriro ere.

**Txistea**

Hiru txirrindulari komunean daude lotan; bata esponja gainean, bestea bainontzian eta hirugarrena komun zuloan. Hurrengo goizean berriketan daudela, galdetzen dio batek besteari:

- Zer moduz igaro duzu gaua?
- Primeran!, eta zuk?
- Baita nik ere.

Hirugarren txirrindulariak ez du ezer esaten, eta orduan galdetzen diote:

- Eta zuk, zer moduz igaro duzu gaua?
- Nahiko larri! Ekaitza, uholdea, trumoiak... zer ez zen izan bart. Eskerrak enbor hura agertu zenari, bestela ito egingo nintzatekeen...

Asier Markiegi  
Sebas Gonzalez

**d e n b o r a p a s a k**

Eneritz Arriaran, Maite Erdabide eta Lorena Sanchez

► **ASMAKIZUNAK**

1  
Zer dela eta zer dela airean ibili eta hegan eginez, hanka ugari eta gorputzik ez.


2  
Gauza beltz bat jausi zen itsasora hurrengo goizerarte ezin atera gora.

3  
Ez esan gezurra, zer ari da jaten zakurra?

4  
Tinta badut baina idazteko, hanka asko ere bai baina ez ibiltzeko, harroa naiz ibiltzeko eta erraza asmatzeko!


► **JEROGLIFIKOA**

**Pertsonaia mitologikoa**



► **HIZKI ZOPA**

**Aurki itzazu hamabi kirolen izenak.**



**SOLUZIOAK**

- 4. Olagarra
  - 3. Hezurrea
  - 2. Gaua
  - 1. Armatza
- **ASMAKIZUNAK**
- Lamia
- **JEROGLIFIKOA**
- Arrunlaritza
  - Pelota
  - Boleibol
  - Igeriketa
  - Tenisa
  - Txirrindularitza
  - Praguismo
  - Futbola
  - Rugbi
  - Saskibaloi
  - Eskubaloi
  - Eskalada
- **HIZKI ZOPA**

# Erosketak egiterakoan, baserriko produktuak ala kanpokoak nahiago?



**Itziar Suinaga**

28 urte, langilea


Erosketak egiterakoan ez dut gehiegi begirutzen hemengoak diren ala ez. Aldean daukatena hartzen dut, ondo aztertu barik.



**Ainhoa Larrañaga**

21 urte, ikaslea


Guk etxean hartzen ditugu, beraz argi dago bertakoak nahiago ditudala. Erosketak egiterakoan ere baserrikoak nahiago ditut, gehiago ordaindu behar izan arren.



**Patxi Etxaniz**

65 urte, jubilatua


Baserrikoak nahiago ditut, kalitate hobekoak dira eta. Zertxobait garestiagoak izan arren, bertako produktuak erosten ditut. Lagundu egin behar zaio baserritarrari.



**Fran Martínez**

31 urte, langilea


Erosketak egiten ditudanean, parean tokatzen zaidana erosten dut, prezioa edota bertako produktuak diren ala ez diren kontutan hartzeke.



**Begoña Arabiurrutia**

63 urte, etxekoandrea

Niri bertakoak gustatzen zaizkit. Horrekin ez dut esan nahi kanpokoak kalitate txarrekoak direnik. Arraman heldutako fruituak dira gozoenak.



**Alejandro Familiar**

59 urte, langilea

Baserriko produktuak freskoagoak eta kalitate hobekoak dira. Bertako patata, esate baterako, garestiagoak izan arren, askoz hobea da. Bertakoak erosten ditut.

**LASTER IREKITZEKOA (urriaren 28an)**

## Obstetrizia eta Ginekologia Kontsulta Serrano Doktorea

• GENITALETAKO MINBIZIAREN PREBENTZIOA •

• ANTISORKUNTZA • MENOPAUSIA •

• BULAR PATOLOGIA • ZIRUGIA •

• HAURDUNALDIA • JAIO AURREKO

DIAGNOSTIKOA • ESTERILIZAZIO KIRURJIKOA

(GIZONAK / EMAKUMEAK) • ANTZUTASUNA •

• GINEKOLOGIA PSIKOSOMATIKOA •

**PREZIO BEREZIAK, 25 URTEZ BEHERAKO, ETXekoANDRE ETA ZAHARRENTZAT  
(LAGUN-ARO ASEGURUAK, IGUALATORIO MEDIKU-KIRURJIKOA...)**

**San Martin Mediku Zentrua**

Ramon Maria Lili, 2 (LASA Jatetxea zegoen atzekaldean) BERGARA. Tfnoak: 76 59 39 / 72. Faxa: 76 25 72





## Gatz gutxiko kanpaina

Alderdiek eskaini duten hauteskundeetarako kanpaina hotza eta urruna iruditu zait, aspergarri xamarra.. Gai berokak, kaleko jendeari dagozkionak alegia, alde batera utziz, folklore hutsean erori dira: errifak, kondoi banaketa, onartezineko aldarrikapenak. Politikoak beraien artean ondo berotu dira. Benetako eztabaida ez omen da inondik ikusi.

Langabezia mozteko neurriak, intsumisioaren aurrean baikoitzak defenditzen duen jokabidea, etxebizitza merkeen eskasia, Maltzaga-Urbina errepide proiektua (peajerik bai ala ez?), euskal administrazioaren berrikuntza, udalen finantzaketa, korrupzioaren aurkako neurriak, besteak beste, izkutu-an gelditu dira. Nola aukeratu orduan?

Euskal gatazkari buruz ere ezer guzti hitz egin dute, kontraesan bat barne; alde batetik HBrekin zubiak eraiki behar direla esanez eta, aldiz, alderdi honetako ordezkariekin uko eginez telebistan eztabaida bat egiteko.

Azken finean, kanpainari berotasuna falta izan bazaio nire ustez eztabaida publikoak desagertu direlako izan da. XXI. mendeko atarian telebista baztertzeko gezurra dirudi. Alde honetatik, ostiralean amaitzen den kanpaina zaharra, aintzinakoa izan da. Iritzi publikoa, gaurko gizartean sujetu historikoaren papera betetzen duenez, mezuak bideratzeko mediorik egokiena telebista dugu. Akatsak dauzka, noski, baina beldurti agertzeak, eztabaidetatik ihes egiteak ondorio txarra goak izan ditzake botoak irabazi nahi dituenarentzat.

**Iñigo URRUTIA**



## Goraintziak

**HITZONTZIAK.** Ez da besterik garai honetan. Eta berba gehiegi egiten duenak sarri sartu ohi du hanka, edo beste modutara esanda, berba gehiegi egin beharrean dagoenak bi-etako bat, lan gutxiegi egin du ala gehiegi du ezkutatzeko. Beraz, garai honetan zuhur ibiltzea hobe.

Inkestak, esate baterako. Jakina, dirurik duenak egin ohi ditu eta dirurik gastatzekotan inbertsioa behar du izan. Eta inbertsioak errentabilizatzeko direnez, komunikabiderik gizenen bidez -a ze morrontza batzuentzat- alderdi horiek orain arte lortu uste ez dutena azken kartutxoaz lortu nahi dute.

**HAUTSONTZIAK.** Emaitzak gertatu eta gero irabazleak aurretik esandakoari noraino lotzen zaizkion ere zalantzakoa da, kanpainan zehar etsaitzat jo direnak gobernukide lasai bihurtzen dira eta. Emandako botoak eta adierazitako eritziak birrintzeko mekanika abiatzen dela dirudi eta deskonfiantza giroa barreiatzen da bazter guztietara.

**HAUTESTONTZIAK.** Hala ere hauteskudeari benetako balioa aitortu nahi diot. Zer garen baino, une horretan zer uste dugun adierazteko bada ere, zer uste dugun hori garenaren zati bat delako. Gure esku dago izana eta ustea hurbiltzea. Noraino garen abertzale, noraino euskaltzale, langile edo langabetu, zein eredu ekonomikoren alde gauden. Azken finean, Euskal Herriak bere osotasunean hitz egingo ez badu ere, nolako Herrirantz joan nahi dugun adierazteko beharra dago eta. Abertzaleak garelako erakutsi beharra dagoelako.

**Fermin LAZKANO**

## MARQUES

"Curvas subjetivas"



**NAHIKARI TABERNA**  
Masterreka, 20 ☎ 76 57 71

ARREGUI, E.M.



**ARROZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
  - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
  - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



**TOSHARE**

• ILEAPAINDEGI MISTOA •

• ESTILISTA •

Artekale, 29 behea  
Tfnoa: 76 29 70  
BERGARA



Lorentxo Altube txalapartari buruzko azalpenak ematen ikasle talde bati. Erakusketa igandera arte egongo da ikusgai.

## Soinu zaharrak ezagutzen

### Bergarako OHoko 2.

#### zikloko ikasleak Kultur

Etxean dagoen Euskal Herriko soinu tresnen erakusketa ikusten izan dira aste honetan.

#### Lorentxo Altube

arrasatearraren eskutik, ikasle eta irakasleek tobera, adarra, ttun-ttuna edota txalapartaren sekretuak ezagutzeko aukera izan dute. Lorentxok instrumentoei buruzko hainbat xehetasun eman eta soinu tresna hauek jotzen hasteko animoak eman dizkie ikasleei. Hauen interesa ikusirik, beharbada horren aldeko eskakizunak jasotzen hasiko dira Musika Eskolan...

## Hori zuloa!!

Angiozarrera doan errepidean argazkian ikus daitekeen zuloa agertu da azken asteotan. Itxura batean, **San Kristobal** auzotik 500 bat metro gora, euriaren eraginez, errepideko karril erdia jausi egin da, ibilgailu, txirrindulari edota oinezkoentzat horrek suposatzen duen arriskuarekin. Momentuz, karril erdia bakarrik dago martxan eta arazoak berehalako soluzioa eskatzen du.



## ZABALETA Errotuloak

Mota guztietako errotuloak  
Fatxadak, eskaparateak...

Amillaga (Gasolindegiaaren ondoan) ☎ 76 57 34

## MAKAILO ETXEA

Makailau kazuelak  
gertatzen ditugu

Ibargarai, 15



**Klowna**

Oihulari Klown bergarar taldeak urritik maiatzera bitarteko astebukaeretan ikastaro intentsiboak antolatu ditu Legazpiko Udal Aterpetxean. Hasteko, urriaren 30 eta 31n eta azaroaren 1ean hastapen ikastarobat emango dute Virginia Imaz eta Jose Karmelo Muñoz irakasleek. Partaideek beren komizitatea eta emozioak modu alaiago batean espresatzeko aukera izango dute. Argibideak 76 02 55 telefonoan.

**Zertan dihardute ba?**



**Jose Miguel Zaldo**

Tavex Taldeko presidentea Caja Laboral-Euskadiko Kutxak eta Empresa XXI aldizkariak ematen duten "Urteko Enpresa-gizon Onenaren Saria" jaso zuen astelehenean Bilboko Ercilla Hotelean. Ekitaldian, besteak beste, Jose Antonio Ardanza lehendakaria, zenbait kontseilari, Josu Ortuondo Bilboko alkatea eta beste hainbat pertsonalitate izan ziren. Bere hitzetan, "ez nuen saria espero. Suposatzen dut enpresa momentuan ondo doalako izango dela eta lanean ondo ari diren langileei emandako saria dela uste dut". Jose Miguel Zaldo 48 urteko bilbotarrak 22 urte daramatza Tavex Taldean lanean.

**Amerikara joan nintzen...**

Amaia Ilarduia Miamin dagoen bergararrak karta bat bidali digu orain dela gutxi. Amaia Enpresa eta Ekonomia Zientzietan lizentziatua da Deustuko Unibertsitatean (marketing espezializazioa egin du) eta, Komertzio eta Turismo Ministeritzaren bitartez, becaria moduan lan egiten ari da Espainiako Turismo bulegoan; otsailean Miami-ra heldu eta urtarrilera arte South Miami Beachek azken urteotan izan duen garapena aztertzen izango da, eredu hori Espainiako hainbat tokitara ekartzeko aukerarik dago-



Washingtongera egindako bidaia batean Amaia Ilarduia Martin Garmendia bergararrarekin elkartu zen kasualidadez. Honelakoetan esaten den bezala, zein txikia den mundua!!

en jakiteko. Miami Today egunkariak dagoeneko artikulu bat eskeini dio Amaiaren proiektu horri eta bertan azaltzen duenez, "ez dago hain azkar eta hain emaitza onekin bonen moduko garapena izan duen beste lekurik". Espero dezagun Amaiak eredu hori hobetua ekar dezala bueltan...


**Pepelu**  
**Olepaindegia**  
 Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62  
 BERGARA

**ARDATZA**  
**Brikolaketa**  
 Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioa
- Era guztietako moldurak
- Apalak eta kajoiak

# Xabier Lijó

**Xabier Lijó (27 urte) 2. maila nazionalen jokatzeko ari den Bergara K.E.ko eskubaloitako taldeko jokalaririk beterranoena dugu. 12 urte daramatza eskubaloian jokatzeko, kadeteen entrenatzailea da eta Mendiko Federazioan lan egin du.**



*"Partiduak irabazteko esperientzia ezinbestekoa da. Superstizioso naiz eta dantzan egitea asko gustatzen zait. Daulaghirira joan nahi nuke eta langabeziaren arazoa konpontzea gustatuko litzaidake"*

- Noiz arte eskubaloian?
- Hau azken urtea izatea espero... Erreleboa eman behar da.
- Jokalari ala entrenatzaile?
- Entrenatzaile.
- Gazteen indarra ala beterranoen esperientzia?
- Partiduak irabazteko esperientzia behar da.
- Forman egoteko, zer?
- Egunero kirolen bat egin eta norbera zaindu.
- Astebukaeran juergarik?
- Egun seinalatuetan bakarrik.
- Superstizioso zara?
- Bai, etxetik irtetzerakoan adibidez atekak ikutzen ditut.
- Zerbaki bat?
- 3a.
- Nondik dantzarako zaletasuna?
- 13-14 urterekin pelikulak ikustetik.
- Zein filmeko protagonista izan

- nahi zenuke?
- "Fiebre del sábado noche"koa.
- Dantzan, bakarrik ala lagunduta?
- Bakarrik.
- Presumido samarra zara?
- Bai.
- Zenbat aldiz ispilu aurrean?
- Askok.
- Emakume batengan zertan fikatzen zara?
- Aurpegi eta ipurdian.
- Itxura fisikoa ala izaera?
- Izaera.
- Birtute eta defektu bat?
- Sakrifizioa eta defektua batzuetan gehiegi hitzegiten dudala.
- Musika taldeetako zenbat kamiseta daukazu?
- 35.
- Zein mendi espedizio egingo zenuke?
- Himalayara, Daulaghirira.
- Inguruko mendirik zikinena?
- Urbia.
- Zer da ekolojista izatea?
- Norberaren ingurua errespetatzea.
- Perretxikotara joaten zara?
- Ez.
- Botoa emango duzu igandean?
- Bai.
- Lehendakari izango bazina?
- Langabezia konpontzen saiatu.
- Nola ikusten duzu zeure burua 20 urte barru?
- Burusoil.



## EMAKUMEENTZAKO ESKULAN IKASTAROA

METAL eta EGUR PINTAKETA, HIRU DIMENTSIOTAKO KUADROAK, ESTAINUA, ESKAIOLA, MARMOLINA LANKETA...

**NOIZ:** Azaroaren 3tik otsaila bukaera arte.

**ORDUTEGIA:** Astearte eta ostegunetan. 15.30-17.00.

**NON:** Gartzela zaharra.

**IZEN-EMATEA:** Urriaren 26a baino lehen, JARDUNen. ☎ 76 08 19.

**PREZIOA:** Bazkideak: 2.000 pzta. Gainontzekoak: 2.500 pzta.




# EGUZKITZA

## ERRETEGIA

- Txuletak, kokotea, itxas sapua, ehiza...
- Bataio eta jaunartze bazkariak
- Jaiegunetan enkarguak hartzen ditugu

Aranerreka, 30

☎ 76 56 03



# ARGAZKI


Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66

## Galde debalde

### JUNKAL ARRUTI eta EDURNE BARRENETXEA

Aurreko Galde Debalden urteko gaurik luzeena eta egunik motzena dituen eguna galdetzen genizuen. Erantzuna: **Santa Luzia eguna, abenduak 13. JUNKAL ARRUTI eta EDURNE BARRENETXEA** jarri du erantzun zuzena eta berari tokatu zaio aste honetako saria. Berarentzat izango da, beraz, **EGUZKITZA ERRETEGIA** emandako saria. Zorionak sarituei.

**AGUR GALDE DEBALDERi:** Aste honetako izango da azken Galde Debaldea. Noizean behin aldizkarian aldaketak egitea komenigarria dela eta, sail hau kentzea erabaki dugu. Aurrerantzean, **BONOFOTO**ko galderei astero- astero erantzuteko aukera izango duzue.



# SANTOS IRRATI-TB

## SALMENTA ETA ZERBITZU TEKNIKOA

Koloretako TB, bideoa, soinua,  
elektragarailuak, antenak, sukaldeak  
altzariak, argiztapenak...

Masterreka 2, BERGARA  
Tfnoa eta faxa: 76 26 10

# Zubikua

## JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16

**ETXEBIZITZA**

Amueblatu gabeko pisua alokatuko nuke. ☎ 76 34 48 (Yolanda).

Pisua salgai Artekalen. ☎ 76 12 81.

Pisua salgai Osintxun. ☎ 76 50 05 (Josune).

Etxea alokatzen da Martokuan. ☎ 76 14 60.

Pisua alokatzen da Matxiategin. ☎ 76 46 15.

Pisu amueblatua salgai Bolun. ☎ 76 10 75 (gauzez).

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Pisua alokatzen Zubiaurren. ☎ 76 13 85.

Pisua salgai Martokua 18an. ☎ 76 00 51.

Pisua salgai Artzamendin. ☎ 76 10 55.

Garajea salgai Zurradero 8an. ☎ 76 13 93.

Pisua salgai Zabalotegiko Torrean. ☎ 76 33 19.

Pisua salgai San Migel kalean. ☎ 76 02 13 (goizez).

Pisua alokatzen da Irizar ibilbidean. ☎ 76 21 28.

Garajea saltzen da Ibargarai kalean. ☎ 76 44 25.

**DENETARIK**

Ford Fiesta Ghia SS-T salgai. ☎ 76 15 40/16 18.

Medailoi eta katai bat galdu ditut Matxiategi eta Mugertza artean. Sarituko da. ☎ 76 12 86.

Urrezko belarritako bat (aroduna) galdu dut. ☎ 76 25 52.

Bi neska behar dira Donostian (Antiguon) pisua osatzeko. ☎ 76 21 09.

ESP Horizon bajoa eta Marshall JCM 800 anplia salgai. ☎ 76 56 61 (Ibon).

Volkswagen Corrado kotxea salgai (SS-AG). ☎ 76 38 16 (gauzez).

Renault Express diesel kotxea salgai (berri-berria). ☎ 76 50 70.

Zibro estufa salgai (egoera onean). ☎ 76 12 86.

Trial Ossa (350 cc.) motoa salgai. ☎ 76 37 42.

Opel Corsa 1200 kotxea (SS-AJ) salgai. ☎ 76 29 91.

Ordenadore merke bat erosiko nuke. ☎ 76 08 19.

Armairu bat (1.80 m.koa gehienez) erosiko nuke. ☎ 76 59 15 (Jose Luis).

**LANA**

Ingeles klaseak. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

BBB 3.eko matematikako klaseak hartuko nituzke etxean. ☎ 76 38 71 (Larraitz).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxebizitzak garbitzen ditut. ☎ 76 59 47 (Loli).

Ingeles Filolojian lizentziatua, ingeles klaseak. ☎ 76 26 63.

BBB eta LH klaseak. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Haurrak zaindu edo etxe-ko lanak egingo nituzke. ☎ 76 42 10.

Perfumeak saltzeko lana eskeintzen da. ☎ 75 10 07 (Raquel).

Fisika eta matematika klaseak. ☎ 76 24 57.

Lokalak garbituko nituzke. ☎ 76 51 76 (Leire).

Matematika klase partikularrak ematen dira. Zubieta 2, 1.goa eskuma (Jesus).

Erizain laguntzaileak zaharrak zainduko lituzke (gauzez ere bai). ☎ 76 47 71.

Aleman klaseak. Tituloduna. ☎ 76 12 77 (Maite).

Matematika finantziario klaseak. ☎ 76 05 43.

Zaharrak zaindu, etxeak garbitu, dendaren batean lagundu edo jostunen batekin lan egingo nuke. ☎ 75 24 47.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 45 93.

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

**LXUKUN**  
BEREZITASUNAK  
Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62  
BERGARA

**A  
R  
R  
A  
N  
O**  
  
**Taberna**  
Kruz Gallastegi BERGARA

**ONENA**  
TINTATEGIA  
Barrenkale, 29 BERGARA

Atsedeen zentrua  
**LOKARTU**  
Koltxoi-denda  
Orain SORALUZEN

**ZUBIAURRE**  
aroztegia  
SARRERAKO ETA BARRUKO ATEAK.  
HORMA ARMAIRUAK  
EGURREZKO ETA PVC-ZKO LEIHOAK.  
ERA GUZTIETAKO AROTZ LANAK.  
Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

**ZUBIETA**  
elektragintza  
MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK  
Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48



## Lehen maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	A
1. Mongatxurra	7	4	3	1	0	26	7	m u l t z o a
2. Errotagain	7	4	3	1	0	31	15	
3. Bar Canalejas	7	4	3	1	0	15	7	
4. Angiozar	7	4	3	1	0	14	10	
5. Madura	6	4	2	2	0	18	11	
6. OH Zerezos	2	4	1	0	3	12	16	
7. Etxagi	2	4	1	0	3	16	22	
8. Ogizun	2	4	1	0	3	13	20	
9. Uve Bikoitza	0	4	0	0	4	11	22	
10. Guadalest	0	4	0	0	4	7	33	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	B
1. Arloteak	6	4	3	0	1	12	7	m u l t z o a
2. Pagomendi	6	4	3	0	1	16	12	
3. Bild. OPEL/LAM	6	4	3	0	1	14	10	
4. Kabia	5	4	2	1	1	26	7	
5. Ozaeta	5	4	2	1	1	14	8	
6. Usoa	4	4	1	2	1	12	10	
7. Kayak Os Jard.	3	4	1	1	2	9	16	
8. Revienta	2	4	1	0	3	7	10	
9. Arkupe	2	4	1	0	3	10	34	
10. Ufala	1	4	0	1	3	9	15	

## Bigarren maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	C
1. Krai	7	4	3	1	0	12	2	m u l t z o a
2. Kriterium	7	4	3	1	0	12	7	
3. Nahikari Hool.	6	4	3	0	1	7	5	
4. A Ze Flaxa	3	2	1	1	0	4	1	
5. Nekrofilikos	3	4	1	1	2	8	13	
6. Constr. Bergara	2	3	1	0	2	9	9	
7. Txipiron	1	2	0	1	1	2	3	
8. Kriston Potruak	1	4	0	1	3	2	6	
9. Paok San Juan	-2	3	0	0	3	4	14	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	D
1. Etxenagusia	8	4	4	0	0	38	6	m u l t z o a
2. La Juve	6	3	3	0	0	15	4	
3. Shaktale	4	4	2	0	2	18	14	
4. Amozkibar	4	3	2	0	1	9	10	
5. Igandekoak	2	2	1	0	1	8	4	
6. Aldoka Maldoka	2	3	1	0	2	9	8	
7. EH Biterrak	2	3	1	0	2	4	15	
8. Labegaraieta	2	4	1	0	3	7	24	
9. Los Txupetas	0	4	0	0	4	9	32	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	E
1. Soropotroak	7	4	3	1	0	18	5	m u l t z o a
2. Hartu Zamak	6	4	3	0	1	21	7	
3. Pikapiedras	5	4	2	1	1	11	5	
4. Eri	4	3	2	0	1	11	9	
5. Kirolzaleak	4	3	2	0	1	7	5	
6. Ezinleike	4	4	2	0	2	18	17	
7. Ari Ari	0	2	0	0	2	3	11	
8. Pata Negra	0	2	0	0	2	0	13	
9. Patxaran Team	0	4	0	0	4	7	24	

## emaitzak

Etxagi-Bar Canalejas ... **2-3**  
 U. Bikoitza-Errotagain . **4-7**  
 Ogizun-Angiozar ..... **4-6**  
 Madura-OH Zerezos ..... **3-2**  
 Guadal.-Mongatxurra ... **1-8**

Kabia-Usoa ..... **2-2**  
 Arkupe-Bildurbarek .... **5-4**  
 Kayak Os Jar.-Ozaeta .. **3-3**  
 Revienta-Pagomendi ... **1-4**  
 Ufala-Arloteak ..... **0-3**

A Ze Flaxa-Krai ..... **1-1**  
 Txipiron-Nahikari ..... **1-2**  
 Kriston P.-Kriterium .... **0-1**  
 Nekrofilikos-C. Bergara **2-1**

Aldoka-Labegaraieta ... **2-3**  
 Etxenag.-EH Biterrak ... **9-1**  
 Shaktale-Amozkibar .... **3-5**  
 La Juve-Los Txupetas . **5-3**

Patxaran T.-Kirolzaleak **2-6**  
 Soropotroak-Pikapied . **1-1**  
 Pata Negra-Ezinleike ... **0-7**  
 Ari Ari-Hartu Zamak ..... **1-6**

## partiduak

### LARUNBATA

#### Kanpoan

9.00: Labegaraieta-La Juve  
 (Paok de San Juan)  
 10.00: Paok-Nekrofilikos  
 (Ari Ari)  
 11.00: Ezinleike-Ari Ari  
 (Nekrofilikos)

### IGANDEA

#### Barruan

9.00: Pagomendi-Arkupe  
 (Angiozar)  
 10.00: Angiozar-Madura  
 (Ozaeta)  
 11.00: Ozaeta-Bild. OPEL/LAM  
 (Usoa)  
 12.00: Usoa-Revienta  
 (Kabia)  
 13.00: Arloteak-Kabia  
 (Revienta)  
 16.00: Kayak Os Jard-Ufala  
 (Bar Canalejas)  
 17.00: Errotagain-Canalejas  
 (Ogizun)  
 18.00: Uve Bikoitza-Ogizun  
 (Etxagi)  
 19.00: Mongatxurra-Etxagi  
 (Ogizun)

#### Kanpoan

9.00: Kirolzaleak-Soropotroak  
 (Igendekoak)  
 10.00: Igandekoak-Etxenagusia  
 (Eri)  
 11.00: Eri-Patxaran Team  
 (Aldoka Maldoka)  
 12.00: Amozkibar-Aldoka  
 (Pikapiedras)  
 13.00: Pikapiedras-Pata Negra  
 (Amozkibar)  
 16.00: Kriterium-A Ze Flaxa  
 (Construcciones Bergara)  
 17.00: C. Bergara-Nahik. Hool.  
 (Shaktale)  
 18.00: EH Biterrak-Shaktale  
 (Nahikari Hooligans)

**OHARRA:** Parentesi artean  
 partiduak arbitratu behar  
 dituzten taldeen izenak.

**KIROL  
KARTELDEGIA**

► **Futbola**

**Bergara-Eskoriatza**  
Preferente maila.  
Igandea, 16.00. Agorrosin.

**Bergara-UDA**

Lehen mailako jubenilak.  
Larunbata, 17.45. Ipintza.

**Bergara-Aloña Mendi**

2. mailako jubenilak.  
Larunbata, 15.00. Ipintza.

**Bergara-Soraluze**

2. mailako kadeteak.  
Larunbata, 10.00. Ipintza.

**Bergara-Santo Tomas**

Lehen mailako infantilak.  
Igandea, 11.30. Ipintza.

► **Eskubaloia**

**Bergara-Tolosa**

Kadete mutilak.  
Larunbata, 17.45.

**Bergara-Bizkor Fiansa**

Senior mutilak.  
Larunbata, 19.00.  
Biak Kiroldegian.

► **Saskibaloia**

**Ibili Bergara-Etxadi**

Senior mutilak.  
Larunbata, 16.15.

**Bergara-Aldapeta**

Jubenil neskek.  
Larunbata, 12.15.  
Biak Kiroldegian.

► **Pelota**

• Goñi eta Andueza /  
Badiola I eta Oregi.

• Uruinaguena eta  
Tolosa / Nagore eta  
Aldazabal II.

• Badiola II eta Errasti II /  
Orbea eta Andueza VI.

Larunbata, 16.30.  
Udal pelotalekua.



Pagaldaik 17. aldiz amaitu zuen igandean Donostiako maratoia.

**Iaz baino bergarar  
gutxiago Donostiako  
maratoian**

**Iaz baino** bergarar ordezkarri gutxiago izan zen igandean Donostiako Maratoian, aurreko urtean 18 eta aurten 6 partaide izan baitira. Berriz ere Basilio Aranburu izan genuen onena, 42. postuan, 2 ordu 38 minutu eta 44 segundurekin, Aitor Eraña 87. postuan sailkatu zen (2 ordu 47' eta 12"), Bixente Pagaldai 89.ean (2 ordu 47' 34"), Javier Moreno 158.a izan zen (2

ordu 56' 48"), Manuel Dí- az 195.a (3 ordu 2 minutu eta 4 segundu) eta Emilo Bernal, azkenik, 201.a 3 ordu 2 minutu eta 52 segunduko denboraz. Guz- tiek txaloak merezi badi- tuzte ere, Bixente Pagal- daik egindakoa benetan aipagarria da; angiozarta- rrak orainarteko 17 edizi- oak korritu eta amaitu di- tu. Dudarik ez, Donostia- ko Maratoiaren historian egon beharreko marka.

**Bergarako Duatloia** korrituko da larunbatean eguerdiko 12etan hasita Agorrosin inguruan. Irteera Agorrosingo igerilekuetatik egingo da eta ibilbidea Agorrosin-San Martzial-Agorrosin izango da. Parte hartzaile guztiek batera irtengo badute ere, bi maila bereiztuko dira: kadeteak eta absolutoak. Parte hartu nahi dutenek, proba hasi aurretik irteera puntura agertu beharko dira. Duatloia, Atletico Zaleak kirol elkarteak antolatu du Udal Kirol Zerbitzuaren laguntzarekin.

**FONTSI  
MEMORIALA**

Alfonso Miner "Fontsi" ze- naren omenezko V. Fontsi Memoriala jokatu da urriaren 29an. Goizeko 8etan Seminarioan 12 or- duko futbito txapelketa ha- siko da. 14.30etan, mendi- ko bizikleta lasterketari emango zaio hasiera eta 16.00etan, hiruko sas- kiratze lehiaketa izango da Seminarioan bertan. Futbito txapelketak ez du sexu ezta adin mugarik izango. Izenak emateko epea zabalik dago eta Ariznoa, Deportibo eta Pol-Pol tabernetan egin daiteke. Talde bakoitzak 3.000 pza. ordaindu be- harko ditu. Mendiko bizi- kleta lasterketari dagokio- nez, bi maila osatuko dira: 14 urtera artekoak (izen- ematea doan eta 16 km.ko ibilbidea) eta 14 urtetik gorakoak (izen ematea: 400 pza. federatuek eta 600 federatu gabeek. Ibil- bidea, berriz, 36 km.koa). Izen-ematea, Seminario- an, 13.30etan.

**JARAMARA**

Iban Rodriguezek igandean Jaraman jokatu duen kotxe karrera ikusteko au- tobusa antolatu da. Irtee- ra, goizeko 5etan eta itzu- lera gaueko 9.30etarako Bergaran. Prezioa: 1.600 pza. autobusa eta sarre- ra. Izen-ematea, Etxagin, lehenbailehen.

**ANTIA**  
**HARATEGIA URDAITEGIA**  
*Txahal, idi, txerri, bildots,  
untxi eta baserriko oilaskoak.*  
Matxiategi ☎ 76 15 09

**KONTSULTA BERRIA**  
*Cristina Garcíandia Mugica*  
*DERMATOLOGIA, BENERELOGIA, MEDIKU KIRURJIKOA*  
**SAN MARTIN OSASUNDEGIA**  
Ramon maria Lili, 2. Ate nagusia. ☎ 76 59 39  
Lagun Aro Aseguruak Osasun Laguntza



## Gipuzkoa: bihotz-bihotzean




Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**. Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren, ohiturarik errotuenen alde. Gure jende guztiaren alde. Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

**Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.**

Argitarapen honen edizioko laguntzade

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa fundazioa**  
**fundación kutxa**



**kutxa**

gipuzkoa  
donostia kutxa  
caja gipuzkoa  
san sebastián



## Gabonetako futbito txapelketa frontoian. 1979.

**O**rain urte batzuk gaztetxoen futbito txapelketa egiteko ohitura zegoen urtero Frontoian. Gabonetako oporrak aprobetxatuz, goiz eta arratsaldez partiduak izaten ziren eta noizbehinka jokaldi bikainak ikus- teko aukera ere izaten zen.


Argazkian duzuen Lasai-Toki taldea 1979ko txapelketa irabazi zuen, Oxirondori finalean nagusitu eta gero.

Horra hor zeintzuk diren, ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Jose Ignacio, Iñaki Etxarri, Antonio Ot, Diego Osuna, Jose Blanco, Enrique Díaz, Paco Osuna eta Ma- nolo Caballero.

**Makurtuta:** Jose Heis, Felix Salamanca, Juan Luis Molina, Juan Becerra eta Francisco Javier Mateos.

## EArekin GOBERNU ABERTZALEA



e u s k o a l k a r t a s u n a

Eusko Alkartasunak Gobernu Abertzalea eta zuzena osatzeko proposamena egiten du, diru xahuketaren aurka zuhurtasunez jokatzeko eta burokrazia antzueren aurka eginkortasunez aritzeko.





**Katabia, 1**

**ARTAZI**  
**OIHALAK**

**☎ 76 27 17**



Barrenkale, 28. Tfno. 76 04 65.  
BERGARA.  
Kalebarren, 1. Tfno. 76 62 44.  
ANTZUOLA

**adituak gara loreekin  
arteak egiten!!**

**ERA GUZTIETAKO APAINKETA  
LANAK EGITEN DITUGU:**

- Eleizenak
- Automobilenak
- Atarienak
- Andregaietzako erramuak
- Koroak
- Hiletetarako apainketak

**ETXE BARRUEN DEKORAZIOA**

**DOMU-SANTU EGUNERAKO  
(AZAROAK 1) ENKARGUAK  
HARTZEN DITUGU.**





**Euskadi berritzearekin  
elkar zaitez.**



**EAJ  
PNV**